



AGINDUA, GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO
DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILAREN 2025-2028 URTEETARAKO
DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEKO

Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6. artikuluan xedatzen duenez, lege horren aplikazio-eremuan sartzen diren erakundeen dirulaguntzen jarduera (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, besteak beste) plan estrategiko baten bidez planifikatu beharko da aldez aurretik.

Plan horrek honako hauek jasoko ditu: helburuak, lortu nahi diren ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak, finantzaketa-iturriak, eta planaren helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak, planaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen mende.

Sailei eta haiei atxikitako sektore publikoko erakundeei dagozkien dirulaguntzen planak sail bakoitzeko titularrak onartuko ditu; hala ere, gaiaren berezitasunagatik, saila baino eremu txikiagoko dirulaguntzen planak egin ahal izango dira, edo sailari atxikitako erakundeei buruzkoak bakarrik. Planak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira, hargatik eragotzi gabe beste atari batzuetan argitaratzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularraren bidez, hura egiteko oinarritzko jarraibideak zehaztu ditu.

Aipatutako araudia betetzeko, sailaren dirulaguntzen jardueraren ikuspegi orokorra emateko, efikazia- eta efizientzia-mailak handitzen laguntzeko eta publikotasunaren eta gardentasunaren alde egiteko, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2025eko martxoaren 20ko Aginduaren bidez Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren 2025-2028 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Orain Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazioetako Erregistroetako Zuzendaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmen baten sinadura sustatzen ari da, Vitoria-Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa finantzatzeko. Hori dela eta, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren 2025-2028 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatu behar da, dagokion dirulaguntza izenduna jasotzeko.

Horiek horrela, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 3. artikulua emandako eskumenei jarraikiz, hau

c/ Donostia – San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 90 45 – Fax: 945 01 90 29



EBAZTEN DUT:

Bakarra: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren 2025-2028 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea, agindu honen eranskin gisa jasoz.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua

MARÍA UBARRECHENA CID

Eranskina

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2025-2028)
Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau egin du (aurrerantzean, DPE), aintzat hartuta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (aurrerantzean, DAL) xedatu duena, eta bat etorrita dirulaguntzen plan estrategikoak egiteko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularreko jarraibideekin.

DPE tresna programatikoa da, eta haren edukiak ez die ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen onuradun izan daitezkeenei. Plana eraginkorra izan dadin, dirulaguntza-lerroak abian jarri beharko dira; betiere, besteak beste, ekitaldi bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontua aintzat hartuta.

Era berean, DPE horretan jasotako dirulaguntza-programen ebaluazioaren ondorioz ikusten bada dirulaguntza-lerro batzuek ez dituztela helburuak espero bezala betetzen, edo inbertitutako baliabideen mailan ez dutela emaitza egokia ematen, dirulaguntza horiek aldatu egin ahalko dira, edo eraginkorragoak eta efizienteagoak diren beste batzuekin ordeztu, edo, hala badagokio, kendu.

2. ESPARRU SUBJEKTIBOA ETA DENBORAZKOA

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak kudeatzen dituen dirulaguntzak jasotzen ditu DPE honek, bat eginez lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9. artikuluan jasotzen diren eskumenekin. Dekretu horrek, gogoratu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu. DPE honek jasotzen ditu dirulaguntzak 18/2024 Dekretuak Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailari honako arlo hauetan ematen dizkion eskumenak erabiliz: autonomia-erkidegoaren garapenerako politika, Administrazioa, administrazio digitala, gobernu elektronikoa eta gardentasun-politika modernizatzea eta eraberritzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibila eta Berezia, toki-araubidea, EAEko gobernantza publikoa aplikatzeko eredua diseinatzea, politika publikoak definitu eta gauzatzerakoan, elkarleen eta fundazioen araubidea, informazio-sistemak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eraldaketa digitala, baita legeek eta erregelamenduek esleitzen dizkioten beste gaietan ere, hain zuzen, Autonomia Erkidegoko herritarren artean informazio gizartea sustatzea eta negoziazio kolektiboari laguntzea.

Denboraren eremuari dagokionez, 2025-2028 urteetarako aurreikuspenak jasoko ditu DPEak, aurreikusten dituen dirulaguntzen izaera bereziaren arabera.

3. HELBURU OROKORRAK

Askotariko helburuak bete nahi ditu sail honek sustapen-jarduerarekin, aipatutako lehendakariaren 18/2024 Dekretuak esleitutako eskumen-eremu ezberdinak kontuan hartuta:

1. Gure autogobernuaren ezagutza hobetuko duten eta gure eskubide historikoen gaineko ondare kulturala eta juridikoa hobetuko duten azterlanak sustatzea.
2. EAEko toki-erakundeek toki-autonomiaren garapena.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio eta herri onurako elkarteei aplikatu beharreko esparru juridikoa argitzea eta Euskadiko fundazioen sektorea sendotzea.
4. Herri-administrazioek herritarren ekimenak sortutako balio publikoa aitortzea, erakundeek laguntzarekin edo laguntzarik gabe, bi aldeen ekimenei laguntza emanez eta koherentzia ematen saiatuz, Ardatz 2030aren barruan gobernu irekiko erronka gisa, eta Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren I. Ekintza Planaren esparruan.
5. Euskal Zuzenbide Zibilari eta Autonomikoari buruzko azterlana, zabalkundea eta informazio publikoa eguneratzea 2024ko ekitaldian.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko jardura sindikalari finantza-laguntza ematea, bere helburuak eraginkortasunez betetzeko.
7. Eraikinetan dauden telekomunikazio-azpiegiturak ostatatzea ahalbidetzen duen ekipamendua hobetzea, sareen hedapena optimizatzeko eta energia-kontsumo txikiagoa lortzeko.
8. Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren datu-katalogoaren potentziala erakustea, datu irekien erabilera eta horietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, eta berrerrabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboak gehien eskatzen dituen datuak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko.
9. Vitoria-Gasteiz sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa

Sailaren dirulaguntzak hartzen ditu planak, eta honako organo hauek kudeatuko dituzte horiek:

1. Autogobernu Zuzendaritza.
2. Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.
3. Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritza.
4. Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.
5. Lan Harremanen Zuzendaritza.
6. Estrategia Digitalaren Zuzendaritza.
7. Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza.

Aurreko guztia aintzat hartuta, helburu orokor hauek lortu nahi dira DPE bat egiten

denean:

1. Xedetzat erabilera publikoko edo gizartearen intereseko jarduerak sustatzea duten politika publikoak planifikatzeko tresnaz hornitzea sail hau, bere eskumeneko arloetan.
2. Ikuspegi ekonomiko-finantzariotik begiratuta, dirulaguntzen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea ahalbidetuko duten kudeaketa-tresna uniformeagoak zehaztea.
3. Informazio publikorako sarbidea ahalbidetzea, gardentasunaren eta gobernamendu onaren praktiken ikuspegitik abiatuta.

4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-ILDOAK

Jarraian, Saileko unitate organikoen arabera zerrendatuko dira DPEaren ardatz estrategikoak eta horietako bakoitzari dagozkion dirulaguntza-ildoak, eta dirulaguntza-ildo bakoitzerako honako hauek adieraziko dira:

- 1.- Lortu nahi diren programa eta helburu espezifikoak, programa eta helburu horiek lortzeko garatuko diren ekintzak eta eragina neurtzeko beharrezkoak diren adierazleak.
- 2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako ekarpen ekonomikoa dirulaguntza-ildo bakoitzerako, baita ekarpen horren ehunekoa ere, finantzaketa publiko osoarekiko.
- 3.- Dirulaguntza-ildo bakoitzaren xede den sektorea edo sektoreak, baita hura emateko erabiliko den prozedura eta tresna juridikoa ere.



1. AUTOGOBERNU ZUZENDARITZA:

a) EUSKAL AUTOGOBERNUAREN EZAGUTZA HOBETUKO DUTEN AZTERLANAK SUSTATZEA

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen ildoak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: Gure autogobernuaren ezagutza hobetuko duten eta gure eskubide historikoen gaineko ondare kulturala eta juridikoa hobetuko duten azterlanak sustatzea	
Dirulaguntza ildoak: Dirulaguntza Dirulaguntza Globernance Gobernantza Demokratikoaren Institutuari (IEAE)	
Organoa: Autogobernu Zuzendaritza	
Programa: 12110	2025-2026
Helburua: Gure autogobernuaren eta gure eskubide historikoen gaineko ondare kultural eta juridikoaren ezagutza hobetzea.	72.000
Ekintza: Fortún Garcíaren (1490-1534) lanaren lau liburuki itzuli, editatu eta argitaratzeko dirulaguntza ematea:	
• Pactis: 500 testu orrialde • Legem Gallus: 500 orrialdeko testua • De Ultimo Fine: 400 testu orrialde • Gerrari eta doluari buruzko tratatua (80 testu), Consilio (40) eta gutunak eta miszelanea (20). 140 testu-orrialde, guztira.	
Adierazleak: Proiektua gauzatzeko memorian zehaztutako denbora-mugarrien arabera	

2.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko

1. helburu estrategikoa: Gure autogobernuaren ezagutza hobetuko duten eta gure eskubide historikoen gaineko ondare kulturala eta juridikoa hobetuko duten azterlanak sustatzea				
Dirulaguntza ildoak: Dirulaguntza Globernance Gobernantza Demokratikoaren Institutuari (IEAE)				
Organoa: Autogobernu Zuzendaritza	2025		2026	
Programa: 12110	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	38.000	100	34.000	100
Guztira	38.000	100	34.000	100

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen ildoak: zer sektoreri dago zuzendua eta emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: Gure autogobernuaren ezagutza hobetuko duten eta gure eskubide historikoen gaineko ondare kulturala eta juridikoa hobetuko duten azterlanak sustatzea	
Dirulaguntza ildoak: Dirulaguntza Globernance Gobernantza Demokratikoaren Institutuari (IEAE)	
Organoa: Autogobernu Zuzendaritza	
Programa: 12110	2025-2026
Zer sektoreri dago zuzendua	Globernance Gobernantza Demokratikoaren Institutua (IEAE)
Emateko prozedura	Gobernu Kontseiluaren Akordioa

b) EUSKAL AUTOGOBERNUAREN EZAGUTZA HOBETUKO DUTEN AZTERLANAK SUSTATZEA

1º.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen ildoak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

Helburu estrategikoa: Gure autogobernuaren ezagutza eta pertzepzioa hobetuko duten azterlanak sustatzea, diagnostiko-analisi baten bidez, besteak beste, balorazioan, balizko arriskuetan eta legitimitate-oinarrietan sakonduz.	
Dirulaguntza ildoak: Zuzeneko dirulaguntza, UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetzaren bitartez, Ekonomia Itunaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eta Foru Ogasunek unibertsitate horretan gauzatutako ikerketa-ildoetarako.	
Organoa: Autogobernu Zuzendaritza	
Programa 1: 12110	2025
Helburua: Gure autogobernuaren ezagutza eta pertzepzioa hobetuko duten eta balorazioa, balizko arriskuak eta legitimitate-oinarriak bezalako alderdietan sakontzea ahalbidetuko duten azterlanak sustatzea.	14.900
Ekintza: UPV/EHUko ikerketa-talde batek ikerketarako zuzeneko dirulaguntza ematea, euskal herritarrek Ekonomia Itunari eta Autogobernuari buruz duten pertzepzioaren diagnostiko eguneratua aztertuz. Berariazko galdetegi bat diseinatuko da, Ituna zentroak duela gutxi egindakoekin bat etorriz. Lurralde historikoaren, sexuaren, adinaren eta eskala ideologikoaren arabera banatutako inkesta bat egin ondoren, txosten bat egingo da emaitza nagusiekin eta diagnostiko orokor bat komunitate akademikoaren eta euskal iritzi publikoaren artean zabaltzeko.	

2º.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen ildoak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzazioaren ehunekoa finantzazio publikoa orotara hartuta

Helburu estrategikoa: Gure autogobernuaren ezagutza eta pertzepzioa hobetuko duten azterlanak sustatzea, diagnostiko-analisi baten bidez, besteak beste, balorazioan, balizko arriskuetan eta legitimitate-oinarrietan sakonduz.	
Dirulaguntza ildoak: Zuzeneko dirulaguntza, UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetzaren bitartez, Ekonomia Itunaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eta Foru Ogasunek unibertsitate horretan gauzatutako ikerketa-ildoetarako.	
Organoa: Autogobernu Zuzendaritza	

Programa 1: 12110	Zenbatekoa €	%
4. Kapituluak	14.900	100
Guztira		

3º.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen ildoak: Zer sektoreri dago zuzendua eta emateko prozedura

Helburu estrategikoa: Gure autogobernuaren ezagutza eta pertzepzioa hobetuko duten azterlanak sustatzea, diagnostiko-analisi baten bidez, besteak beste, balorazioan, balizko arriskueta eta legitimitate-oinarrietan sakonduz.		
Dirulaguntza ildoak: Zuzeneko dirulaguntza, UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetzaren bitartez, Ekonomia Itunaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak eta Foru Ogasunek unibertsitate horretan gauzatutako ikerketa-ildoetarako.		
Organoa: Autogobernu Zuzendaritza		
Programa 1: 12110		2025
Zer sektoreri dago zuzendua	EHUko Ikerketa Errektoreordetza	
Emateko prozedura	Gobernu Kontseiluaren akordioa	

2. TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGISTROETAKO ZUZENDARITZA

a) EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA-ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS (EUDEL), TOKI-AUTONOMIA SUSTATZEKO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA.

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: helburuak, ekintzak eta adierazleak.

3. helburu estrategikoa: EAEko toki-erakundeetan toki-autonomia garatzea		
Dirulaguntza-ildoak: EUDEL. Tokiko autonomia sustatzeko jarduerak		
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza		
Programa: 1217 Erakunde Harremanak		2025-2028
Helburua: Euskadiko toki-administrazioaren arloko araudian jasotako toki-autonomiaren arloko helburuak lortzea.		
Ekintza: Tokiko autonomia sustatzea.		

1. adierazlea- Prestakuntza jardueretan gastuak, jardunaldiak, dokumentuak eta argitalpenak.
2. adierazlea- Tokiko autonomia sustatzearekin lotutako jarduerak.

2.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko

3. helburu estrategikoa: EAEko toki-erakundeetan toki-autonomia garatzea								
Dirulaguntza-ildoak: EUDEL. Tokiko autonomia sustatzeko jarduerak								
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	2025		2026		2027		2028	
Programa: 1217 Erakunde Harremanak	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua Guztira	100.000 100.000	100 100	100.000 100.000	100 100	100.000 100.000	100 100	100.000 100.000	100 100

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: zer sektoreri zuzentzen zaion eta emateko prozedura

3. helburu estrategikoa: EAEko toki-erakundeetan toki-autonomia garatzea	
Dirulaguntza-ildoak: EUDEL. Tokiko autonomia sustatzeko jarduerak	
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	
Programa: 1217 Erakunde Harremanak	2025-2028
Zer sektoreri dago zuzendua: irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk	Euskadiko Udalen Elkarteak - Asociación de Municipios Vascos (EUDEL)
Emateko prozedura: dirulaguntza izenduna	Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren Agindua

b) FUNKO FUNDAZIOEN EUSKAL KONFEDERAZIOARENTZAKO DIRULAGUNTZA

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

4. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio eta herri onurako elkarteei aplikatu beharreko esparru juridikoa argitzea eta Euskadiko fundazioen sektorea sendotzea	
Dirulaguntza-ildoak: FUNKO Fundazioen Euskal Konfederazioarentzako dirulaguntza	
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	
Programa: 1217 Erakunde Harremanak	2025-2028
Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio eta herri onurako elkarteei aplikatu beharreko esparru juridikoa argitzea eta Euskadiko fundazioen sektorea sendotzea.	
1. ekintza: formakuntza-jarduerak finantzatzea eta betebeharrak legalen betetzea erraztu. 1. adierazlea- Diruz lagundutako jardueren prestakuntza- eta/edo hedapen-egunen kopurua, non egin diren zehaztuta. 2. adierazlea- Dagozkion prestakuntza- eta/edo hedapen-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua eta jarduera horien balantzea. 3. adierazlea- Euskal Fundazioen Konfederazioaren zabalkunde- eta formakuntza-jardueretan parte hartzen duten fundazio eta herri onurako elkarten kopurua, FUNKOko bazkide diren ala ez zehaztuta. 4. adierazlea- Ezagutza arlo desberdinetan (merkataritza-arloa, zerga-arloa, arlo-estrategikoa, etab.) emandako aholkularitza-tekniko orduak. 2. ekintza: Euskadiko fundazioen sektorea sendotzea. 1. adierazlea- Funko.es webgunean bisita kopurua. 2. adierazlea- FUNKOk parte hartutako sare kopurua. 3. adierazlea- FUNKOko bazkide diren fundazio kopurua. 4. adierazlea- FUNKOko bazkide diren fundazioen diru-sarreraren, aktiboen eta jardunaldi osoko baliokide diren enpleguen	

zenbatekoa.

5. adierazlea- Fundazio sektoreari buruz egindako ikerketa kopurua.

6. adierazlea- Fundazioekin edo FUNKOko sare direnekin egindako bilera kopurua.

7. adierazlea.- Zenbat egunetan parte hartu duen sareek antolatutako ekitaldi, hitzaldi, eztabaida, mahai-inguru, jardunaldi eta mintegietan.

2.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko

4. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio eta herri onurako elkarteei aplikatu beharreko esparru juridikoa argitzea eta Euskadiko fundazioen sektorea sendotzea

Dirulaguntza-ildoak: FUNKO Fundazioen Euskal Konfederazioarentzako dirulaguntza

Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	2025		2026		2027		2028	
Programa:1217 Erakunde Harremanak	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	15.000	100	15.000	100	15.000	100	15.000	100
Guztira	15.000	100	15.000	100	15.000	100	15.000	100

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: zuzenduta dagoen/ dauden alorra/k eta emateko prozedura

4. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio eta herri onurako elkarteei aplikatu beharreko esparru juridikoa argitzea eta Euskadiko fundazioen sektorea sendotzea

Dirulaguntza-ildoak: FUNKO Fundazioen Euskal Konfederazioarentzako dirulaguntza

Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza

Programa: 1217 Erakunde Harremanak	2025-2028
Zer sektoreri dago zuzendua	Euskadiko Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazioak eta Euskadiko

Emateko prozedura	Elkarteen Erregistroan inskribatutako herri onurako elkarteak
	Dirulaguntza izenduna/hitzarmena Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez

c) VITORIA-GASTEIZ HIRIA SUSTATZEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE ERKIDEEN EGOITZA GISA

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen ildoak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: Vitoria-Gasteiz sustatzea, EAEko erakunde erkideen egoitza gisa	
1. dirulaguntza ildoak: VITORIA-GASTEIZ EAEko erakunde komunen egoitza gisa	
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	
Programa: 1217 Erakunde Harremanak	2025-2028
Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetzak, Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa sustatzea finantzatzeko). 1. ekintza: Vitoria-Gasteiz hiria Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen egoitza gisa sustatzea. 1. adierazlea-Argiteria publikoagatik ordaindutako gastuak (argiaren kontsumoa eta konponketak); bide eta azpiegitura publikoen mantentze-lanak (kontserbazio-gastuak eta konponketak); bide-garbiketa eta HHSen bilketa eta garraioa (garbiketa zerbitzua), bidaiarien hiri-garraioa (TUVISAren aldeko ekarpena) eta herritarren segurtasuna (Udaltzaingoa, langile-gastua eta gastu arruntak). 2. adierazlea- Hiri-espazio publikoa birgaitzeko eta mantentzeko egindako obrak. 3. adierazlea- Azpiegitura eta ekipamendu publikoetan egindako inbertsioak.	

2º.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen ildoak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzazioaren ehunekoa finantzazio publikoa orotara hartuta

1. helburu estrategikoa: Vitoria-Gasteiz sustatzea, EAEko erakunde erkideen egoitza gisa								
1. dirulaguntza ildoak: VITORIA-GASTEIZ EAEko erakunde komunaren egoitza gisa								
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza								
Programa: 1217 Erakunde Harremanak	2025		2026		2027		2028	
	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	6.000.000	100	6.000.000	100	6.000.000	100	6.000.000	100
7. kapitulua	6.500.000	100	6.500.000	100	6.500.000	100	6.500.000	100
Guztira	12.500.000	100	12.500.000	100	12.500.000	100	12.500.000	100

3º.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntzen ildoak: Zer sektoreri dago zuzendua eta emateko prozedura

1. helburu estrategikoa: Vitoria-Gasteiz sustatzea, EAEko erakunde erkideen egoitza gisa	
1. dirulaguntza ildoak: VITORIA-GASTEIZ EAEko erakunde komunaren egoitza gisa	
Organoa: Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza	
Programa: 1217 Erakunde Harremanak	2025-2028
Zer sektoreri dago zuzendua: EAEko udalak	Sektoreak identifikatu: Vitoria-Gasteizko Udala
Emateko prozedura: dirulaguntza izenduna/hitzarmena	Emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindua (Vitoria-Gasteizko Udalarekiko hitzarmena).

3. GOBERNU IREKIAREN ETA GOBERNU ONAREN ZUZENDARITZA

HERRITARREN PARTE HARTZEA BULTZATZEA

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

5. helburu estrategikoa: herri-administrazioek herritarren ekimenak sortutako balio publikoa aitortzea, erakundeek laguntzarekin edo laguntzarik gabe, bi aldeek ekimenei laguntza emanez eta koherentzia ematen saiatuz, Ardatz 2030aren barruan gobernu irekiko erronka gisa, eta Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren I. Ekintza Planaren esparruan	
Dirulaguntza-ildoak: Elkarlan Sariak — 2025-2028ko deialdiak	
Organoa: Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritza	
Programa: 1217 Erakundeek harremanak	2025-2028
Helburua: gardentasuna hobetzea eta herritarrek gai publikoetan parte har dezaten sustatzea. Proiektu berritzailea aintzatesteaz gain, sariak beste eragile batzuei parte-hartzea bultzatzeko formula ezberdin horiek transferitzen ere lagundu nahi du, Euskadin balio publikoa batera sortzeko ikaskuntza- eta lankidetzaren sare bat finkatuz joan dadin. Ekintza: Elkarlan sariak beste deialdi bat, herritar antolatuek eta ez-antolatuek aurkeztutako proiektuak saritzeko. Proiektu horiek balio publiko partekatua sortzea sustatu behar dute, eta gizarte-premiak eta -erronkak ase behar dituzte jardura-eremu hauetako batean: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikaskuntza/kultura, gizarte-koheretza eta gobernantza, kultura demokratikoa erabaki publikoetan. 1. adierazlea: aurkeztutako proiektuen kopurua. 2. adierazlea: zenbat boto eman dizkieten herritarrek aurkeztutako proiektuei web-plataforman.	

2.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-eremuko finantzaketa publikoaren globalarekiko

5. helburu estrategikoa: herri-administrazioek herritarren ekimenak sortutako balio publikoa aitortzea, erakundeen laguntzarekin edo laguntzarik gabe, bi aldeek ekimenei laguntza emanez eta koherentzia ematen saiatuz, Ardatz 2030aren barruan gobernu irekiko erronka gisa, eta Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren I. Ekintza Planaren esparruan

Dirulaguntza-ildoak: Elkarlan Sariak — 2025-2028ko deialdiak								
Organoa: Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritza	2025		2026		2027		2028	
Programa: 1217 Erakundeek harremanak	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%
4. kapituluak	36.000	100	36.000	100	36.000	100	36.000	100
Guztira	36.000	100	36.000	100	36.000	100	36.000	100

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: zer sektoreri zuzentzen zaion eta emateko prozedura

5. helburu estrategikoa: herri-administrazioek herritarren ekimenak sortutako balio publikoa aitortzea, erakundeek laguntzarekin edo laguntzarik gabe, bi aldeek ekimenei laguntza emanez eta koherentzia ematen saiatuz, Ardatz 2030aren barruan gobernu irekiko erronka gisa, eta Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren I. Ekintza Planaren esparruan

Dirulaguntza-ildoak: Elkarlan Sariak — 2025-2028ko deialdiak	
Organoa: Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritza	
Programa: 1217 Erakundeek harremanak	2025-2028
Sektore hartzaileak	Eskabidea aurkeztu den egunean egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoek aurkeztu ahal izango dute proiektua, honako arlo hauetan: osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikasketa-kultura, kohesio soziala eta gobernantza, kultura demokratikoa eta erabaki publikoetan parte hartzea.
Emateko prozedura	Norgehiagoka: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez egingo da deialdia.

4. ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDETZA

Zuzenbidearen Euskal Akademia - Foru Zuzenbidearen eta Zuzenbide Autonomikoaren eremuko jarduketak diruz laguntzea

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

6. helburu estrategikoa: Zuzenbide Zibilari buruzko azterlana, zabalkundea eta informazio publikoa 2025-2028 ekitaldietan eguneratzea	
Dirulaguntza-ildoak: Zuzenbidearen Euskal Akademia – Foru Zuzenbidearen eta Zuzenbide Autonomikoaren eremuko ekintzak diruz laguntzea	
Organoa: Araubide Juridikoaren Sailburuordetza	
Programa: 12180	2025-2028
Helburua: Euskal Zuzenbide Zibil eta Autonomikoa hedatzea eta herritarrei ezagutaraztea.	
Ekintza: Akademiak urte honetarako planteatutako jarduerak finantzatzeko dirulaguntza ematea, planteatzen den jardueraren arabera proposatzen diren adierazleekin.	

2.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko

6. helburu estrategikoa: Zuzenbide Zibilari buruzko azterlana, zabalkundea eta informazio publikoa 2025-2028 ekitaldietan eguneratzea								
Dirulaguntza-ildoak: Zuzenbidearen Euskal Akademia – Foru Zuzenbidearen eta Zuzenbide Autonomikoaren eremuko ekintzak diruz laguntzea								
Organoa: Araubide Juridikoaren Sailburuordetza	2025		2026		2027		2028	
Programa: 12180	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%	Zenbatekoa (€)	%
4. kapitulua	8000	100	8000	100	8000	100	8000	100
Guztira	8000	100	8000	100	8000	100	8000	100

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: zer sektoreri zuzentzen zaion eta emateko prozedura

6. helburu estrategikoa: Zuzenbide Zibilari buruzko azterlana, zabalkundea eta informazio publikoa 2025-2028 ekitaldietan eguneratzea	
Dirulaguntza-ildoak: Zuzenbidearen Euskal Akademia – Foru Zuzenbidearen eta Zuzenbide Autonomikoaren eremuko ekintzak diruz laguntzea	
Organoa: Araubide Juridikoaren Sailburuordetza	
Programa: 12180	
Sektore hartzaileak	Abokatuak, prokuradoreak, erregistradoreak eta notarioak.
Emateko prozedura	Dirulaguntza izenduna, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez.

5.- LAN HARREMANEN ZUZENDARITZA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako jardura sindikala finantzatzeko laguntza, 2024-2027 ekitaldiei dagokiena

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

7. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko jardura sindikalari finantza-laguntza ematea, bere helburuak eraginkortasunez betetzeko	
Dirulaguntza-ildoak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan 2024-2027ko ekitaldietako jardura sindikala finantzatzeko laguntzaren banaketa	
Organoa: Lan Harremanen Zuzendaritza	
Programa: 12130 (Jatorria: 99 Atala, 1221 Programa)	
Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorraren akordioa betetzea.	
Ekintza: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan ordezkariak duten erakunde sindikalei laguntzak ematea 2024, 2025, 2026 eta 2027 urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorraren erabakiz ezartzen den banaketaren arabera:	
1. adierazlea: erakunde sindikalen ordezkariak orokorra langile funtzionarioen, estatutupeko langileen eta langile	
2025-2028	

- lan-kontratuko en eremuan.
 2. adierazlea: Negoiazio Mahai Orokorreko ordezkari sindikalen kopurua.
 3. adierazlea: alorreko mahaietako ordezkari sindikalen kopurua.

2.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko

7. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko jardura sindikalari finantza-laguntza ematea, bere helburuak eraginkortasunez betetzeko								
Dirulaguntza-ildoak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan 2024-2027ko ekitaldietako jardura sindikala finantzatzeko laguntzaren banaketa								
Organoa: Lan Harremanen Zuzendaritza	2025		2026		2027		2028	
Programa: 12130 (Jatorria: 99 Atala, 1221 Programa)	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%
4. kapitulu	432.000	100	432.000	100	432.000	100	432.000	100
Guztira	432.000	100	432.000	100	432.000	100	432.000	100

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: zer sektoreri dago zuzendua eta emateko prozedura

7. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko jardura sindikalari finantza-laguntza ematea, bere helburuak eraginkortasunez betetzeko
Dirulaguntza-ildoak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan 2024-2027ko ekitaldietako jardura sindikala finantzatzeko laguntzaren banaketa

Organoa: Lan Harremanen Zuzendaritza		
Programa: 12130 (Jatorria: 99 Atala, 1221 Programa)		2025-2028
Zer sektoreri dago zuzendua	ELA, LAB, CCOO, UGT, SATSE, SME, STEILAS, ERNE, ESAN, EUSPEL, HITZA, USO eta SIPE	
Emateko prozedura	Gobernu Kontseiluaren akordioa	

6. ESTRATEGIA DIGITALAREN ZUZENDARITZA.

Jabeen erkidegoetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko zenbait jarduketa gauzatzeko laguntzak Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan – NextGenerationEU (UNICO Edificios programa).

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

8. helburu estrategikoa: eraikinetan dauden telekomunikazio-azpiegiturak hartzeko aukera ematen duen ekipamendua hobetzea, sareen hedapena optimizatzeko eta energia-kontsumo txikiagoa lortzeko		
Dirulaguntza-ildoak: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko hainbat jarduera gauzatzeko laguntzen deialdia		
Organoa: Estrategia Digitalaren Zuzendaritza		
Programa: 1228 «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» (11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen, 1.1 eta 990/2021 Errege Dekretuaren I. eranskina (990/2021 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, zeinaren bidez onartzen baita autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzeneko laguntzak ematea eraikinetan telekomunikazio-azpiegituren majorako zenbait jarduketa gauzatzeko, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan) eta 1137/2023 Errege Dekretua, abenduaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 990/2021 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, zeinaren bidez onartzen baita eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko hainbat jarduketa gauzatzeko autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzeneko laguntzak ematea, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan).		2025
1. helburua: irrati-difusio soinudunerako, telebista digitalerako eta banda zabal ultralasterrera telekomunikazio-azpiegiturak erabat egokitzea 2000ko urtarilaren 1a baino lehen amaitutako eraikinetan.		

Ekintza: soinu bidezko irrati-hedapenerako, telebista digitalerako eta banda zabal ultralasterrera telekomunikazio-azpiegiturak. Adierazlea: jarduketak zenbat eraikinetan egiten diren.
2. helburua: irrati-difusio soinudunerako, telebista digitalerako eta banda zabal ultralasterrera egokitutako telekomunikazio-azpiegituren zati bat instalatzea 2000ko urtarrilaren 1a baino lehen amaitutako eraikinetan. Ekintza: irrati-difusio soinudunerako, telebista digitalerako eta banda zabal ultralasterrera telekomunikazio-azpiegitura egokituak. Adierazlea: jarduketak zenbat eraikinetan egiten diren.
3. helburua: banda zabal ultralasterrera bakarrik egokitutako telekomunikazio-azpiegiturak egokitzea. Ekintza: banda zabal ultralasterrera bakarrik egokitutako telekomunikazio-azpiegiturak. Adierazlea: Jarduketak zenbat eraikinetan egiten diren.

2.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko

8. helburu estrategikoa: eraikinetan dauden telekomunikazio-azpiegiturak hartzeko aukera ematen duen ekipamendua hobetzea, sareen hedapena optimizatzeko eta energia-kontsumo txikiagoa lortzeko		
Dirulaguntza-ildoak: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko hainbat jarduera gauzatzeko laguntzen deialdia		
Organoa: Estrategia Digitalaren Zuzendaritza	2025	
1. programa: 1228	Zenbatekoa €	%
7. kapitulua	2.904.486	100
Guztira	2.904.486	100

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: zer sektoreri dago zuzendua eta emateko prozedura

8. helburu estrategikoa: eraikinetan dauden telekomunikazio-azpiegiturak hartzeko aukera ematen duen ekipamendua hobetzea, sareen hedapena optimizatzeko eta energia-kontsumo txikiagoa lortzeko
Dirulaguntza-ildoak: eraikinetan telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko hainbat jarduera gauzatzeko laguntzen deialdia

Organoa: Estrategia Digitalaren Zuzendaritza	
Programa: 1228	2025
Zer sektoreri dago zuzendua	Jabe-erkidegoak, eraikin baten edo eraikin-multzo baten jabe-erkidegoak, Kode Zibilaren 396. artikuluan eta Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legean ezarritako jabetza horizontalaren araubidearen mende daudenak, eta telekomunikazio-instalazioak egokitu behar dituztenak eraikinaren edo eraikin-multzoaren barruan eta eraikin publikoei.
Emateko prozedura	Norgehiagoka: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidezko deialdia. Prozeduraren ebazpena, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zuzendariaren ebazpen bidez.

7.- HERRITARRAK ARTATZEKO ETA ADMINISTRAZIOA BERRITZEKO ZUZENDARITZA

OPEN DATA EUSKADI

1.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: helburuak, ekintzak eta adierazleak

9. helburu estrategikoa: Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren datu-katalogoaren potentziala erakustea, datu irekien erabilera eta horietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, eta berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboak gehien eskatzen dituen datuak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko	
1. dirulaguntza-ildoak: Datu irekien sariak	
Organoa: Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza	
Programa: 1215 Berrikuntza eta administrazio elektronikoa	2026-2028
Helburua: Datuak berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboa handitzea, aberastasuna eta gizarte-balioa sortzeko, herritarren intereseko produktuak garatuz.	
Ekintza: Datu irekien bi lehiaketa hauen hurrengo edizioetarako deialdia:	

1. Datu irekien ideia onenentzako sariak, zerbitzu, azterketa, bistaratze, web-aplikazio edo gailu mugikorretarako aplikazio bat sortzeko ideia bat deskribatzen duten proiektu onenak saritzeko. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen datu irekien katalogoetako datu-multzoak erabiliko dira.
2. Datu irekien berrerabilera onenentzako sariak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen datu irekien katalogoetako datu-multzoak erabiliz zerbitzuak, azterlanak, bistaratzeak, web-aplikazioak edo gailu mugikorretarako aplikazioak eskaintzen dituzten proiektu onenak saritzeko.

1. adierazlea: ideien eta aplikazioen lehiaketetara aurkeztutako hautagaitzen kopurua.
2. adierazlea: lehiaketetan erabilitako Open Data Euskadiren datu irekien multzoen kopurua.

2. dirulaguntza-ildoak: Open Data Gela

Organoa: Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza

Programa: 1215 Berrikuntza eta administrazio elektronikoa

2025

Helburua: Lankidetza Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU), ikerketetan datu irekiak berrerabiltzeko kultura bultzatzeko eta sustatzeko, Open Data Euskadiren datu-katalogoa Ingeniaritza Fakultateko "Open Data enpresa-gelan" ezagutzera emanez.

Ekintza: finantza-ekarpena UPV/EHUri, Eusko Jaurlaritzaren datu irekien proiektua (Open Data Euskadi) hedatzeko "Open Data enpresa-gelako" ikasleen artean.

1. adierazlea: Open Data Gelan ikastaroan parte hartzen duten ikasleen kopurua.
2. adierazlea: Open Data Gelan egindako proiektuen kopurua.
3. adierazlea: Open Data Euskadiren datu irekien zenbat multzo erabili diren.

2.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko

9. helburu estrategikoa: Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren datu-katalogoaren potentziala

erakustea, datu irekien erabilera eta horietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, eta berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboak gehien eskatzen dituen datuak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko				
1. dirulaguntza-ildoak: Datu irekien sariak				
Organoa: Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza	2026		2028	
Programa: 1215 Berrikuntza eta administrazio elektronikoa	Zenbatekoa €	%	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	34.500	100	34.500	100
Guztira	34.500	100	34.500	100
2. dirulaguntza-ildoak: Open Data Gela				
Organoa: Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza	2025			
Programa: 1215 Berrikuntza eta administrazio elektronikoa	Zenbatekoa €		%	
Capítulo 4	8.334,6		20	
Capítulo 7	33.338,4		80	
Total	41.673		100	

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-ildoak: zuzenduta dagoen/dauden alorra/k eta emateko prozedura.

9. helburu estrategikoa: Open Data Euskadi webgunearen berri ematea eta haren datu-katalogoaren potentziala erakustea, datu irekien erabilera eta horietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzea, eta berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboak gehien eskatzen dituen datuak zehaztea, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko
1. dirulaguntza-ildoak: Datu irekien sariak

Organoa: Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza	
Programa: 1215 Berrikuntza eta administrazio elektronikoa	
Zer sektoreri dago zuzendua	Teknologia berriein lotutako publikoa, Eusko Jaurlaritzaren datu publikoak erabiltzeko eta/edo herritarrei balio erantsia edo herritarren intereseko datu publikoak berrerabiltzeko interesa emango dieten zerbitzuak, txostenak, web-aplikazioak edo gailu mugikorretarako aplikazioak sortzeko ezagutzak dituenak.
Emateko prozedura	Norgehiagoka: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren Agindu bidezko deialdia.
2. dirulaguntza-ildoak: Open Data Gela	
Organoa: Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza	
Programa: 1215 Berrikuntza eta administrazio elektronikoa	
Zer sektoreri dago zuzendua	EHUko ikasleak, irakasleak eta ikertzaileak.
Emateko prozedura	Agindua, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, EHUri dirulaguntza izenduna ematen diona "Open Data" enpresa-gelako jarduerak garatu eta gauzatzeko

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua

MARÍA UBARRECHENA CID

